

ESKALADA JASANGARRIARI BURUZKO TOPAKETA - TXOSTENA

1.- Sarrera

2013an Gipuzkoako Mendizale Federazioak "Gipuzkoako eskalada guneen berrekipamendua" egitasmoa martxan jarri zuen. 2015ean Gipuzkoako eskalada guneen errolda egin zen, gune batzuk berrekipatzeko asmoarekin.

Berrekipatzeaz gain gune horietan zeuden espezie mehatxatuen azterketa egitearen beharraz ere ohartuta GFAko landa garapeneko departamenduarekin harremanetan jarri eta bertako basozainek urte betez erroldako eskalada gune guztien jarraipena egin zuten.

2017ko martxoan Gipuzkoako eskalada guneen ingurumen erregulazioa publikatu genuen. Bertan eskalada gune guztiak hiru taldetan banatzen ziren: urte guztian debekatutako zonaldeak (gorriak), urteko garai batean debekatuta eta beste batean baimendutako guneak (horiak) eta urte guztian zehar baimendutakoak (berdeak)

Erregulazio honi buruzko iritzi trukaketa bat egitea izan da topaketa honen xedea.

2.- Topaketa

Azaroaren 4an eta 9an, Araotzen eta Ordizian urrenez urren, eskalatazaileen topaketa bat antolatu genuen. Bi egunetan zehar Gipuzkoako txoko desberdinetatik etorritako eskalatazaileek, baita Bizkaiko eta Nafarroako batzuk ere, eskaladaren praktika eta espezie mehatxatuen babesa nola uztartu eztabaidatzen aritu ginen.

Ondorioen artean azpimarragarrienak informazioaren garrantzia eta ingurumen hezkuntza baten beharra izan ziren. Zonalde bat debekatu edo erregulatzen denean erakundeek saiakera berezi bat egin behar dutela argi geratu zen, federazioaren bitartez, eskalatazaileen kolektiboari debeku edo erregulazio horren arrazoiak ongi azaltzeko. Informazio emate hori eskalatazaileen ingurumen heziketa batekin lantzen bada (eskuorri didaktiko bat ateratzeko aukera baloratu zen), espezieak hobeto ezagutzeko beta emateaz gain, erregulazioak ulertzeko tresna izan daitezke. Zonalde debekatu edo erregulatuetan xafra berezi batzuk ipintzea ere baloratu zen.

Zonalde konkretuetako erregulazioen gaia ere landu genuen. Araotzen zonalde esperimental bat egiteko proiektua landu dute bertako eskalatazaileek, non gaur egun debekatua dagoen zonalde batean, eskalatzea baimendu eta espeziei jarraipen bat egitea proposatzen den. Txindokiko ipar partean mendiko eskalada klasikoa egiteko eskaria ere proposatu zen.

Denok elkarlanean jarraitzeko nahia eta beharra adierazi genuen eta datorren urteetan ekimen gehiago martxan jartzeko asmoa beharrezkoa ikusi zen.

Araotzeko egunean 12 pertsona elkartu ginen eta Ordiziako mahai inguruan 23. Aurreikuspenak bete dira eta topaketaren balorazio oso positiboa egiten dugu.

Beste aipamen batzuk:

Komunikazioa email ez eta whatsapp ez egin zen, ondorengo kartela erabilia:



ESKALADA JASANGARRIA GIPUZKOAN

Azaroak 4, larunbata, 10:30etan
Araotzeko aparkalekuan:
eskalatzaileen topaketa ingurumen erregulazioa aztertzeko, hobetzeko eta proposamenak egiteko.

Azaroak 9, osteguna, 19etan
Ordiziako Barrena jauregian.
“Prohibido escalar” dokumentalaren proiektzioa + mahai ingurua Foru Aldundiko, Mendizale Federazioko eta eskalatzaile taldeetako ordezkariekin.

Antolatzailea **Babeslea**



Medioetan izan duen oihartzuna:

<https://goiena.eus/debagoiena/1509794042662-eskalada-jasangarriaren-inguruko-topaketa-eta-hausnarketa-egin-dute-araotzen>

<http://www.diariovasco.com/deportes/mas-deportes/escalada-sostenible-gipuzkoa-20171103004644-ntvo.html>

http://www.ok-magazine.com/okmagazine_det.php?idioma=eu&id=1606

Eibarren, 2017ko azaroaren 13an